# KUL TUR AGENDA

## ESCAPE ROOM



Aitzoain
Añezkar
Ballariaian
Berriobeiti
Berriogoiti
Elkarte
Larrageta
Lotza
Oteitza

# BE RRIO BEI TI

**Azaleko irudiak:** Escape Room 12 urtetik gorakoentzat, urtarrilaren 26an, Artikako María de Maeztu Kultur Etxean.

AYUNTAMIENTO BERRIOPLANO
BERRIOBEITIKO UDALA

Argitaratzailea: Berriobeitiko Udala
L.O.: NA 253-2015
Doan banatzen da

Casa de Cultura
MARIA DE MAEZTU
Kultur Etxea

**URTARRILA-OTSAILA/2019**
Editorea: Berriobeitiko Udala
Doako zabalpena

## ›› OHARRAK

**PUNTUALTASUNA**
Ikuskizuna hasi ondoren, ezin izanen da inor aretoan sartu.

**SOINU-SEINALEAK**
Aretoan sartzerakoan deskonektatu beharko dira.

**GRABAKETAK ETA ARGAZKIAK**
Debekatuta daude.

**JANARIAK ETA EDARIAK**
Aktoreek eta ikusleek merezi duten begiruneagatik, barne-ikuskizunetan ezin izanen da jan, ezta edan ere.

**ITZULTZEAK**
Sarrera bat erosteko ordaindutako dirua itzultzeko arrazoi bakarra ikuskizuna bertan behera uztea izanen da.

**SARRERAK**
Zenbakidun sarrerak.

## ›› TXARTEL SALMENTA

Ikuskizunetarako txartelak María de Maeztu Kultur Etxean erosten ahalko dira **emanaldi bakoitzaren aurreko astean. Ez da telefono bidezko erreserbarik onartuko**.

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

**LEIHATILAN**
(Kultur Etxeko Atezaindegian). Ikuskizun bakoitza hasi aurreko ordubete lehenagotik.

**ALDEZ AURRETIK**
**www.berrioplano.es** webgunean eta Kultur Etxeko atezaindegian, 16:00etatik 21:00etara

## ›› KULTUR AZPIEGITURAK

**KULTURA ZERBITZUA**
Udaletxean
**Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:** cultura@berrioplano.es

**MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA**
Iturribidea, 1. Artika.
**Tel:** 948 38 32 54
**Kafetegi-Taberna**
**Tel:** 948 57 14 34

**LIBURUTEGI PUBLIKOA**
Maria de Maeztu Kultur Etxean
**Neguko ordutegia:** 15:00etatik 21:00etara
**Tel:** 948 38 26 22
**Posta elektronikoa:** bibliarc@cfnavarra.es

**ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA**
**BERRIOBEITI**
Nuestra Señora de la Purificación, 11.
**Ordutegia:** 10:00etatik 22:00etara. **Tel:** 948 91 04 23 (kafetegi-taberna)

**ARTIGUNE I**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:** 948 30 31 29

**ARTIGUNE II**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 26
**Informazioa:** 948 30 31 29

**MUSIKA ESKOLA**
María de Maeztu Kultur Etxean **Tel:** 616 72 52 18
**Posta elektronikoa:** orreagamusika@gmail.com

**KONTZEJUEN ETXEAK**
**AITZOAIN**: Oronsuspe auzoa k/3

**AÑEZKAR**: San Andres k/ 6
**Tel:** 618 77 84 61

**ARTIKA**
Kontzeju Etxea San Marcial K/ 9
**Tel:** 948 38 37 93
"María Domínguez" Gizarte-Etxea María Domínguez K/3
**Tel:** 948 38 37 93

**BALLARIAIN:** San Pedro k/ z/g

**BERRIOGOITI:** Santa Eulalia k/39
**Posta elektronikoa:** concejoberriosuso@yahoo.es

**BERRIOBEITI:** Kale Nagusia k/ 2

**ELKARTE:** Purificación k/ 16

**LARRAGETA:** San Esteban k/ z/g
**Tel:** 948 30 21 59

**LOTZA:** San Joan k/ z/g
**Tel:** 690 68 68 50

**OTEITZA:** San Joan k/ 6
**Tel:** 651 65 83 14

## ›› KULTUR ETXEA, FACEBOOKEN

### JARRAIGUZU!

Kultur Etxea facebooken

## ››LIBURUTEGIA NEGUAN

### ARRATSALDEKO ORDUTEGIA

Zerbitzuak: liburuak eta ikus-entzunezkoak mailegutan uztea; aldizkariak eta eguneroko egunkariak; internet eta posta elektronikoa; arreta eta aholkularitza uneoro. Artikako liburutegi publikoa Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean dago sartuta, eta katalogoa **www.navarra.es** webean dago kontsultagai.

María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)

**Neguan ordutegia:**

15:00 - 21:00

**bibliarc@navarra.es**

**948 38 26 22**

## ›› LIBURUTEGIA ETXEAN BEREAN

### MUGIKORTASUN MURRIZTUKO LAGUNENTZAT

Berriobeitiko herrietan bizi diren lagunentzat, Nafarroako Liburutegi Publikoetako erabiltzaile txartela eta mugikortasun murriztua izanez gero.

Eskaerak

**bibliarc@navarra.es**

**948 38 26 22**

(15:00 - 21:00)

## ›› KULTUR XEDEETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

### URTARRILETIK AURRERA

Udalak kultur, kirol eta gazteria xedeetarako laguntza-deialdia argitaratuko du 2019ko lehen hiruhilekoan. 30 egun naturaleko epea izanen da diru-laguntzak eskatzeko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik aurrera. Aurkezten diren proiektuak deialdiaren aurreko urriaren 1etik 2019ko irailaren 30era bitarte garatu beharko dira. Salbuespenak salbuespen, laguntza gehienez jardueraren % 70 izanen da.

**Epea:** 30 egun natural, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera

## 11 OSTIRALA

**KAMISHIBAI** (gaztelaniaz)

### "Kyokan"

**Liburutegi Publikoa. Artikako María de Maeztu Kultur Etxea**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 4 urtetik gora
**Sarrera:** librea gonbidapenarekin. Urtarrilaren 10etik (osteguna) banatuko dira liburutegi orduetan.
**Iraupena:** 60 min

## 20 IGANDEA

**ZINEA** (euskaraz)

### "Vicky Bikingoa"

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 18:00
**Sarrera:** doakoa
**Publikoa:** 6 urtetik gorako jende guztiarentzat
**Iraupena:** 85 min



Goiz batez, Flake herritxo bikingoari Sven "Beldurgarria"ren gerlari maltzurrek egin diote eraso, haur guztiak bahituta... Guztiak? Ez, Vickie izan ezik, mutiko ilegorri berezia, Halvar buruzagiaren semea, une zailenetan ideia bikainengatik bereizten dena. Halvarrek, gerlari bikingoen artean egoskorrenak, bahitzaileen atzetik joatea erabakiko du haur guztiak askatzeko. Halvarrek Vickieri beraiekin haurren bila joateko ezezkoa eman ondoren, Vickie txikia itsasontzian ezkutatuko da. Agerian gelditu ostean, itzelezko ideia bururatuko zaio haurrak Sven "Beldurgarria"ren eskuetatik askatzeko. Bikingo adoretsuek bidean mamuak, sekulako maltzurrak eta altxor kutxa preziatuak topatzeaz gain, milaka abentura biziko dituzte.

## 25 OSTIRALA

**IPUIN-KONTALARIA** (euskaraz)

### "Jostailu zaharren iraultza" "

VENTURA RUIZ



Olentzero jostailu berriak ekartzera etorri zen, eta jostailurik zaharrenak, betikoak, zokoratuxeak gelditu dira. Baina hori ez da batere erraza jostailuontzat; beraz, iraultza bat prestatu dute beti izan duten lekua berreskuratzeko.

**Liburutegi Publikoa. Artikako María de Maeztu Kultur Etxea**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 4 urtetik gora
**Sarrera:** librea gonbidapenarekin. Urtarrilaren 24tik (osteguna) banatuko dira liburutegi orduetan.
**Iraupena:** 60 min

## 26 LARUNBATA

**ESCAPE ROOM**

### "Errealitatea fikzioaren gainetik"




**Artikako María de Maeztu Kultur Etxea**
**Ordua:** Lehen saioa: 18:30
Bigarren saioa: 20:00
**Sarrera:** salmenta aurreratua 4 euro (txartelak: www.berrioplano.es)
**Público:** Publikoa: gazteak (12 urtetik aurrera)
**Iraupena:** 60 min

Nafarroako Antzoki Sareak antolaturik, jarduera "Oholtzara - Salto a Escena" izeneko ekimenaren barnean dago, Nafarroako Kutxa Fundazioak nahiz La Caixa Gizarte Ekintzak lagundurik.

Gazteendako scape antzerkia, Escape Room Pamplonaren eskutik. 40 lagun. 60 minutu. Denak sartuko dira.... Zenbat aterako dira, ordea? Errealitatea fikzioaren gainetik... Erronkari heldu nahi diozu? Erronka gainditzeko gauza izanen zara? Jokalariek Kultur Etxeko hainbat tokitan kokatuko diren enigmak eta buruhausgarriak argitu beharko dituzte, istorioa argitzeko eta denbora bukatu baino lehen barnetik "ihes egitea" lortzeko.

## 1 OSTIRALA

HITZALDIA

### “Eskola matrikulazioak 2019-2020”

Zer hezkuntza eredu aukeratuko dugu? Zer hezkuntza programa? Zer ikastetxe publiko dagokigu? Zer eskubide ditugu? Zer gertatzen da Artika-Berriobeitin? Norengana jo dezaket orientabidea eman diezadan? Ikastetxe publikoaren alde egin baduzue, eta horrela sentitzen bazarete, animatu eta etorri.

**Artigune I (Artika Berri)**
**Ordua:** 19:00
**Antolatzailea:** Kalitatezko Hezkuntza Publikoaren aldeko Artikako herritarrak

## 1, 2 eta 3 OSTIRALA, LARUNBATA eta IGANDEA

SANTA AGEDA JAIAK AITZOAINEN

**Aitzoain**

Xehetasunak hemendik gutxira emanen badituzte ere, izanen da zer jan, zer edan, eta besta giro ederra, musikak alaiturik.



## 4 ASTELEHENA

SANTA AGEDA BEZPERA ARTIKAN

### Kantuz Artika Berriko karriketan barna

**María Domínguez Gizarte Etxetik abiatuta**
**Ordua:** 18:00
**Antolatzailea:** Hauspoa Elkartea
**Laguntzailea:** Artikako Kontzejua



# PROGRAMAZIOA OTSAILA 2019

## 8 OSTIRALA

**IPUIN-KONTALARIA** (gaztelaniaz)

OLGA ELIZBURU



**Liburutegi Publikoa. Artikako María de Maeztu Kultur Etxea**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 4 urtetik gora
**Sarrera:** librea gonbidapenarekin. Otsailaren 7tik aurrera (osteguna) banatuko dira liburutegi orduetan.
**Iraupena:** 60 min

## 9 LARUNBATA

**IRTEERA**

### Pitillasko aintzira eta Tafallako El Juncal

Hezeguneen Mundu Eguna dela eta, Gonzalo Deánek gidaturik (Gorosti).



**Programa**
**09:00:** Irteera autobusez Berriobeitiko pilotalekutik
**10:00:** Bisita gidatua Pitillasko aintzirara (12 km-ko ibilbidea)
**14:00:** Bazkaria
**16:30:** Bisita gidatua Tafallako Juncalera
**18:00:** Berriobeitira iristea
**Izen-ematea:** 012 telefonoa urtarrilaren 25ean eta 26an
**Prezioa (dena barne):**
- Helduak: 20 euro
- Haurrak: 10 euro (haur menua)

**LEKU KOPURU MUGATUA**

## 17 IGANDEA

**KONTZERTUA**

### Bluesenea Big Band

**Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikineko taberna-kafetegia**
**Ordua:** 18:30
**Sarrera:** doakoa



## 22 OSTIRALA

**IPUIN-KONTALARIA** (euskaraz)

### "Elur malutak"

VENTURA RUIZ



Elurra bota du. Dena isilik dago. Denak geldirik daude. Baten bat, ordea, ez da geldirik egon. Nor ote? Norenak ote dira oinatz horiek? Nork eraman du nire janaria?

**Liburutegi Publikoa. Artikako María de Maeztu Kultur Etxea**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 4 urtetik gora
**Sarrera:** librea gonbidapenarekin. Urtarrilaren 24etik (osteguna) banatuko dira liburutegi orduetan.
**Iraupena:** 60 min

## 23 LARUNBATA

**KONTZERTUA: BANDA TRUKEA**

### San Blas (Milagro) eta Orreaga (Berriobeiti) Musika Eskolak

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 19:00
**Sarrera:** doakoa
**Iraupena:** 60 min





## 24 IGANDEA

**ZINEA** (gaztelaniaz)

### "Hotel Transilvania 3"



**Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikina (2. aretoa)**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 6 urtetik gorako jende guztiarentzat
**Sarrera:** doakoa
**Iraupena:** 97 min

Oraingo honetan, Drakulak eta familiak Transilvanisetik alde eginen dute, itsasontziz Bermudetako Triangeluraino bidaia egiteko. Hasiera, dena da atseden goxoa, baina gero, hoteleko biztanleak neurrigabeko festan hasi eta bazterrak nahasiko dira. Drac, gainera, itsasontziko andere kapitainaz –Erickaz– maitemindu, eta hura guztia amesgaizto bihurtuko da. Kontua da Mavisek Erickaren sekretu ikaragarriaren berri izanen duela...